



3HI-014/13-P03 AZPEITIA

NIK, TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN IDAZKARIAK

ZIURTATZEN DUT: Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, Gasteizen maiatzaren 22an egindako 2/2013 osoko bilkuran, besteak beste honako erabaki hau hartu zuela, bertaratutakoen aho batez eta, beraz, kideen gehiengo osoarekin:

I.- Lurralde-antolamenduaren arloan:

Azpeitia udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiak proposatutako lurralde-eredua balioestea, arau hauek xedatzen dutenaren arabera: ekainaren 30eko 2/2006 Legea, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa; maiatzaren 31ko 4/1990 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamenduari buruzkoa; eta uztailaren 16ko 5/1993 Legea, Autonomia Erkidegoko Erakundeen eta Lurralde Historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzko Legea aldatzekoa. Hona hemen balioespen hori:

1. BALIOESPEN OROKORRA.

- Plan Nagusian ezarritako lurralde-ereduaren eta bereziki Planaren helburuan garatuko direla aurreikusten ez diren eremuak Sektorizatu gabeko Lurzoru Urbanizagarri gisa sailkatu izanaren aldeko irizpena eman da; izan ere, uste dugu estrategia horrek ahalbidetzen duela lurzorua kontsumoa mugatzea, dauden benetako eskaeren asebetetzera egokituz.

2. INGURUNE FISIKOA.

2.a) Lurzoru urbanizaezinen erabilerak sailkatu eta arautzea.

- Plan Nagusiak Lurzoru Urbanizaezinean ezartzen duen zonakatzearen eta erabileren erregulazioaren aldeko irizpena ematea, zonakatzeara nahiz erregulazioa Zarautz-Azpeitiko Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatikiko Planean ingurune fisikorako ezartzen den lurralde-ereduarekin bat etorri egin behar direla uste dugulako.

2.b) EAEko ibaien eta erreken ertzen antolamendurako Lurraldearen Arloko Plana.

1. PLAN NAGUSIAK GEHITU BEHARKO DU ONDOREN AIPATUKO DIREN EREMUETAKO ARAUDI PARTIKULARREAN IBAIEN ETA ERREKEN ERTZEN ANTOLAMENDURAKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANAK EZARRITAKO ATZERAPEN HAUEK BETE BEHAR DIRELA:

AU 1 (ALDE ZAHARRA):

- Eraikinen gutxienerako atzerapena Urola ibaiaren ibilguari dagokionez: 10,00 metro.

AU 11 (AMUE):

- Eraikinen gutxienerako atzerapenak:
 - Urola ibaiaren ibilguari dagokionez: 15,00 metro.
 - Ibaieder ibaiaren ibilguari dagokionez: 12,00 metro.

AU 18 (LANDETA) (18.4 AZPIEREMUA):

- Eraikinen gutxienerako atzerapena Errezil ibaiaren ibilguari dagokionez: 10,00 metro.

AU 28 (Nuarbe):

- Eraikinen gutxienerako atzerapena Ibaieder ibaiaren ibilguari dagokionez: 12,00 metro.
- Urbanizazioaren gutxienerako atzerapena: 2,00 metro (4,00 metro "ondo zaindutako landaredia duten ertzetan", Lurraldearen Arloko Planak bereizi dituenetan).

AU 36 (Zapatari):

- Eraikinen gutxienerako atzerapena Ibaieder ibaiaren ibilguari dagokionez: 16,00 metro.



- Urbanizazioaren gutxieneko atzerapena: 6,00 metro (8,00 metro “ondo zaindutako landaredia duten ertzetan”).

2. URAREN EUSKAL AGENTZIAREN TXOSTENERA IGORRI DA HAINBAT EREMUTAN AURREIKUSITAKO JABARI PUBLIKO HIDRAULIKOARI ERAGITEN DIOTEN JARDUNEN BALIOESPENA ETA BEREZIKI AU 5 (MADALENA), AU 11 (AMUE) ETA AU 14 (IZARRA) AREEI DAGOZKIEN JARDUNENA (ZUBI BERRIAK, GAINEKO PASABIDEAK, IBILGUEN MUGAKIDE DIREN BIDERATZEEN ETA URBANIZAZIOEN HOBEKUNTZA, ETA ABAR) , BAITA UHOLDEAK IZATEKO ARRISKUA DUTEN EREMUETAN AURREIKUSITAKO JARDUNEN BALIOESPENA ERE.

3. AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK.

Trenbide-sarea.

Urolako trenbidea berreskuratzeari dagokionez, Plan Nagusian biltzen den proposamena Zarautz-Azpeitiko Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatikiko Planean ezarritako ereduarekin bat datorrela kontuan hartuta, proposamenari aldeko balioespena eman zaio.

4. BIZITEGIETARAKO ETA EKONOMIA JARDUERETARAKO KOKALEKUAK.

4.A) BIZITEGIETARAKO LURZORUAREN ANTOLAMENDUA.

- ALDEKO IRIZPENA EMATEA PLAN NAGUSIAN AIPATZEN DEN BIZITEGIETARAKO LURZORUAREN KUANTIFIKAZIOARI; IZAN ERE, PROPOSATUTAKO KAPAZITATEA, HOTS, 1.371 ETXEBIZITZA BERRI, BAT DATOR UROLA-KOSTAKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANEAN EZARRITAKO IRIZPIDEAK APLIKATZEAREN ONDORIOZ SORTZEN DIREN BALIOEKIN.

- ALDEKO IRIZPENA EMATEA BIZITEGI ERABILERARA BIDERATUTAKO LURZORUETARAKO PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDU EREDUARI; IZAN ERE, UROLA-KOSTAKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANEAN EZARRITAKO BALDINTZETARA EGOKITZEN DA.

4.b) Ekonomia-jardueretara zuzendutako lurzoruen antolamendua.

- ALDEKO IRIZPENA EMATEA PROPOSATUTAKO KUANTIFIKAZIOARI ETA EKONOMIA JARDUERETARA ZUZENDUTAKO LURZORUAREN ANTOLAMENDUARI; IZAN ERE, BIAK BAT DATOZ INDARREAN DAGOEN LURRALDE PLANGINTZAN DEFINITUTAKO LURRALDE EREDUAREKIN.

5. BABES PUBLIKOAREN ARAUBIDE BATERA BIDERATUTAKO ETXEBIZITZEN ERRESERBA.

- Aldeko irizpena ematea babes publikoaren araubideren baten barnean dauden etxebizitzaren gutxieneko zenbatekoa eta estandarra Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 80. artikuluan ezarritakoaren arabera orokorrean betetzeari dagokionez egindako espedienteari; Plan Nagusiak proposatutako erreserben transferentzien balioespena Etxebizitza Zuzendaritzaren txostenera aldatu da.

II. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen lehenengo xedapen gehigarriko 3. puntuan Batzorde honi dagokionez ezarritakoaren ondorioetarako, espedienteari txosten honetan jasotako baldintzak gehitzen zaizkionean, behin betiko onetsi ahal izango da, berriro ere Batzorde honen aldeko txostena jaso beharrik izan gabe.

II.- Uraren arloan:



Uraren Euskal Agentziak, 2013ko maiatzaren 15ean emandako txostenean, aldeko irizpena eman zuen, erabaki lotesle hauek betetzeko baldintzarekin:

1. AU 11 arearen (Amue) antolamendua uholdeen arriskua jaistearren baldintzapean geratuko da, arrisku hori babes-neurriak jarriz edo ibilgua hobetuz jaitzi ahal izango da; horregatik, HAPNak irekita utzi beharko du sektore horretan jarduteko aukera finkatuta ez dauden eremuetan; gainera, Urola eta Ibaieder ibaien ibilguetan kokatutako eraikinak beste batzuekin bat eginez (merkatua eta Foru Ibilbidea 12. zenbakiko eraikina) desagerraraz ditzake. Uholde Arriskua Kudeatzeko Planean elkartu beharko dira uholde-arriskua murriztera bideratutako jardunak eta garapen-tresnetarako proposamenak, eta kasu horretan ahalbidetuko da uholde-arriskuak gutxitzeko, ibilguen egoera hobetzeko eta industrialdea berregituratzen eta hirigunean integratzen lagunduko duten jardunak gauzatzea.
2. EAEko Ibaien eta Erreken Ertzen Antolamendurako Lurraldearen Arloko Planaren erabakiez gain, I. eranskinean (Ekialdeko Kantauri kostaren Hidrografia Demarkazioaren Plan Hidrologikoaren artikulua) azaltzen diren eremuetako (urak har ditzakeenak) erabileren mugak aplikatzearen ondorioz sortzen diren atzerapenak eta sestrak errespetatu beharko dira.
3. Hiri-eremuetatik edo eremu urbanizagarrietatik igarotzen diren errekek H.10 eremu globalean ("Ibai Ibilguak", errekek Trukutxon eta bestelako areak) sartu beharko dira.
4. Jabari Publiko Hidraulikoaren gainean eta polizia-gunean egiten diren jardun guztiek baimena izan beharko dute; horretarako, eskaera dokumentatua egin beharko da Kantauriko Ekialdeko Arroetako Bulegoan.

III.- Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren alorrean

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, 2013ko martxoaren 12ko txostenean, aldeko irizpena eman zuen, baina honako xedapen lotesle hauek betetzeko baldintzarekin:

- EAEko Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

Agirietan EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurraldearen Arloko Plana zuzen izendatzea.

IV.- Etxebizitza-alorrean:

Etxebizitzako sailburuordeak, 2013ko maiatzaren 13an, aldeko txostena egin zuen, erabaki lotesle hauek betetzeko baldintzarekin:

- 2.2 eremuko (Perdillegi) hirigintza-fitxako datuak zuzendu beharko dira behin betiko onartu aurretik.

V. Espedientea behin betiko onartzeko, eskumeneko organora bidaltzea URA Uraren Euskal Agentziak (I. eranskina), Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak (II. eranskina), Etxebizitza Sailburuordetzak (III. eranskina) eta Kultura Ondare Zuzendaritzak (IV. eranskina) egindako txostenak. Txosten horiek guztiak ziurtagiri honekin batera bildu dira”.

Eta horrela jasota gera dadin, bilkura honi dagokion akta onetsi baino lehen, Gasteizen, 2013ko maiatzaren 23an agiri hau egin eta sinatu dut.



IDAZKARIA



Stua.: Tomás Orallo Quiroga